



ASTIALDI BILTZARRA 2025

ASTIALDI SAREAren begirada / 1. Dokumentua

Astialdi hezigarriak zer eginkizun du gaur egun Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako auzo- eta udalerri-komunitateen eraikuntzan?



Astialdi hezigarria tresna oso indartsu eta berritzalea da euskal komunitatea, auzo- eta tokiko komunitateak (loturak, balioak eta erantzukidetasuna) eraikitzeko, eta haurren, nerabeen, gazteen eta familien eskubideetan aurrera egiteko. Administrazio publikoen eta gizarte-eragileen sareko lana sendotuz

ASTIALDI BILTZARRA 2025. AISIALDI HEZIGARRIA AUZOKO, UDALERIKO ETA HERRIALDEKO KOMUNITATEAN.

Loturak, balioak eta erantzukidetasun komunitarioa sustatzea euskal komunitateko auzo, herri eta udalerrietan.

- 1.** Euskal komunitatea gizarte globala, digitala eta teknologikoa ere bada orain. Indibidualismoaren garaian bizi gara, konplexutasunak, adimen artifizialak, abiadurak, berehalakotasunak, kontsumoek, lehiakortasunak, hegazkortasunak, hedabideek eta dinamika eta inpaktu sozial, kultural, ekonomiko eta sanitarioen ondorioek markatutako erritmoan. Herritar zorrotzak gara, askotariko identitateak ditugu, hainbat “ni-ren” batura gara, eta zoriantasun eta arrakasta pertsonalaren bila gabiltza, igurikimenei, interesei, premiei eta nahiei erantzunez. Aukerak, ibilbideak eta noranzkoa markatzen dituen testuinguru global batean.
- 2.** Zientziek eta jakintzak azaltzen digutenez, beste pertsona batzuekiko loturak, konexio komunitarioak eta auzo-elkarrekintzak funtsezko elementuak dira zoriantasun pertsonalerako, ondasun komuna, kohesio sozial eta kulturala, inklusioa eta berdintasuna baitakartzate.
- 3.** Euskadi, Euskal Herria edota euskal komunitatea zera dira, partekatzen dugun amankomuntasun bat eraikitzen duten eta erantzukidetasuna eskatzen diguten loturak, konexioak, elkarrekintzak eta balio komunitarioak. Garapen ekonomiko eta kulturala, osasuna, historia, paisaia, memoria, ingurumena, hezkuntza, hizkuntza... ere badira Euskal komunitatea, orobat, giza eskubideak, kontzientzia klimatikoa, garapen soziala, feminismoa, eskubide linguistikoak eta auzolana ere bada.
- 4.** Ezinezkoa da ongizate pertsonala eta euskal komunitatea erdiestea balio partekatuak hauskorra badira eta erantzukidetasun komunitarioa ahula bada. Egokia eta premiazkoia dirudi arlo pertsonala eta kolektiboa egituratzen duten printzipio eta gako horien sendotasunari ekarpen handia egiten dioten ekimen, prozesu eta proiektuak lehenestea. Horretarako, abiapuntutzat hartu behar da Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako eta Euskadiko auzo, herri eta udalerri bakoitzeko komunitate-, gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta osasun- eragileen ekintza adimentsu eta egituratua.
- 5.** Bistakoa da auzoko, herriko edo udalerriko komunitatea aukeren iturri agortezina dela loturak, balioak eta erantzukidetasun komunitarioa sentitzeko, bizitzeko eta esperimentatzeko. Auzoan, herrian edo udalerrian bizi diren pertsonak elkarren bizikide ere badira. Auzo, herri eta udalerritan daude zerbitzuak, proiektuak eta eragileak: eskolak, institutuak, komunitate-, gizarte- eta osasun-zentroak, udal-talde eta proiektuak, liburutegiak, aisiaaldi- eta kirol-zentroak, eta abar. Hurbilekoak dira, halaber, premiak, arazoak, erronkak, zaitasunak eta prozesuak.
- 6.** Auzoko, herriko edo udalerriko komunitatea testuinguru ezin hobea da elkarrekin jarduteko eta, horrela, indarkerien aurka eta genero-berdintasunaren alde borrokatzeko, demokraziaren eta klima-aldaketaren erronkei aurre egiteko, inklusioa sustatzeko, euskararen erabileraaren aldeko apustua egiteko, belaunaldien arteko topaketaren eta lankidetzaren alde egiteko, tolerantzia eta errespetua, ekitatea, anitzasuna eta kohesioa bultzatzeko, familia eta lana bateratzen laguntzeko, hazkuntzan bidelagun izateko, irakurketarekiko, ezagutzarekiko, kulturarekiko eta arteekiko zaletasuna hauspotzeko, eta kirola sustatzeko. Bizikidetza lagunkoian, ongizatean, osasun fisikoan eta osasun mentalean aurrera egin nahi dugu. Horretarako, norbanakoa eta haren ongizatea jarri behar dira proiektu, zerbitzu eta politiken erdigunean, bizitza zaindu behar da, bizitzak zaindu behar dira, eta bizitzako une garrantzitsuetan eta gorabeheretan pertsonei babesa eman eta lagun egin behar zaie. GJHak errealtitate bihurtzea. Guztiontzako oparotasuna eraikitzea, inor atzean utzi gabe.

- 7.** Egokia dirudi zerbitzuen eskaintzari "motor komunitarioa" gehitzea eta beste eredu beterantz jauzi egitea aurrera jo ahal izateko. Izen ere, eragileak, zerbitzuak, proiektuak eta politikak baliagarriagoak, eraginkorragoak, efizienteagoak eta sendoagoak dira gako komunitario hirukoitz hau betetzen badute: loturak, balioak eta erantzukidetasuna sustatzea.
- 8.** Kudea ditzagun kontraesanak proiektuen eta prozesuen koherentzia sendotzeko, gako komunitario hirukoitz hori baliatuz, Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako eta Euskadiko auzo, herri eta udalerrietatik.
- 9. Bainan... Zer egin herritarrekin auzo, herri eta udalerrietako komunitateetan? Jarduera eta prozesuetan aktiboki parte har dezaten bultzatu behar da, helburu hauek lortze aldera:**
- Komunitatearen errealityea ezagutzea eta harekin konektatzea.
 - Komunitateko kide izatearen sentimendua hauspotzea.
 - Komunitateko eragile, zerbitzu, proiektu eta erronkekin elkarrekintzan aritza.
 - Gizarte- eta kultura-premiak identifikatzea eta haiei erantzutea.
 - Gaitasunak, ezagutzak eta balioak ekartzea, herritarasun aktiboa aktibatze aldera.
 - Pentsamendu kritikoa sustatzea, heldutasunez eta kontzientziaz aztertu eta jorratzeko gizarte-errealityea eta haren gakoak, testuingurua, inguruabarrok eta ondorioak.
 - Bizi-apustu eta -motorrak sustatzea: jakin-mina, gogoberotasuna, herritarren parte- hartzea eta boluntariatza, eraldaketa soziala, lankidetza.
 - Izateko, bizitzeko, bizikide izateko, eraikitzeko, lankidetza aritzeko eta komunikatzeko moduetan eredu eta erreferentzia diren esperientzia inspirataileetara hurbiltzea. Esperientzia horiek hurbilekoak edo beste komunitate batzuetakoak izan daitezke.
 - Askotariko gaiei buruz ikertzea.
 - Ikaskuntza pertsonalak eta kolektiboak eragitea, prozesuetan inplikatuta.
 - Eguneroko bizitza eta ekintza pertsonalen eragina aztertzea.
 - Ekintzarako pentsamendu- eta ezagutza-esparruak sortzea, loturen, balioen eta erantzukidetasun komunitarioaren ikuspegitik.
 - Eta askoz gehiago.
- 10. Bainan... Zer egin behar dute eragile komunitarioek?** Egokia eta premiazkoa dirudi eragileen (hirugarren sektore soziala, administrazio publikoak...) arteko loturak eta lankidetza lehenestea, denen artean loturak, balioak eta erantzukidetasun komunitarioa sustatzeko euskal komunitateko auzo, herri eta udalerriean. Pertsonen eta komunitateen garapenerako ekarpenea eginez.



ASTIALDI BILTZARRA 2025

ASTIALDI SAREAren begirada / Documento 1

¿Cuál es el papel del ocio educativo hoy en la construcción de las comunidades de barrio y municipio de Bizkaia, Gipuzkoa y Araba?



"El ocio educativo es un instrumento muy potente e innovador para construir la comunidad vasca, las comunidades de barrio y locales (vinculós, valores y corresponsabilidad) y avanzar en los derechos de la infancia, adolescencia, juventud y familias. Fortaleciendo el trabajo en Red de las administraciones públicas y agentes sociales".

ASTIALDI BILTZARRA 2025. OCIO EDUCATIVO EN LA COMUNIDAD DE BARRIO, MUNICIPIO Y PAÍS.

Potenciar los vínculos, los valores, y la corresponsabilidad comunitaria en los barrios, pueblos y municipios de la comunidad vasca

- 1.** La comunidad vasca somos ahora también sociedad global, digital, tecnológica, en tiempos de individualismo, al ritmo de la complejidad, la inteligencia artificial, la velocidad, la inmediatez, los consumos, la competitividad, volátil, mediática, las consecuencias de las dinámicas e impactos sociales, culturales, económicos, sanitarios,... Ciudadanía exigente, con identidades diversas, suma de "yo-s", en búsqueda de felicidad y éxito personal respondiendo a expectativas, intereses, necesidades y deseos. En un contexto global que marca horizontes, rutas y sentido.
- 2.** Las ciencias, el conocimiento, nos explican que los vínculos con otras personas, las conexiones comunitarias, las interacciones de vecindad son elementos claves y sustanciales para la felicidad personal, que es bien común, que es cohesión social y cultural, inclusión, igualdad...
- 3.** Euskadi, Euskal Herria, la comunidad vasca, son los vínculos, las conexiones, interacciones y valores comunitarios que construyen lo común que compartimos y nos exigen corresponsabilidad. El desarrollo económico, cultural, la salud, la historia, el paisaje, la memoria, el medioambiente, la educación, la lengua.... La comunidad vasca son derechos humanos, conciencia climática, desarrollo social, feminismo, derechos lingüísticos... Es Auzolana.
- 4.** No es posible el bienestar personal ni la comunidad vasca con frágiles vínculos y valores compartidos, y débil corresponsabilidad comunitaria. Parece adecuado y urgente priorizar las iniciativas, procesos y proyectos que contribuyen de manera significativa al fortalecimiento de estos principios y claves que articulan lo personal y colectivo. Desde la acción inteligente y estructurada de los agentes comunitarios, sociales, educativos, culturales, de salud...de cada barrio, pueblo, municipio, en Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Euskadi.
- 5.** Es evidente que la comunidad de barrio, pueblo o municipio es un territorio inmenso de oportunidades para sentir, vivir y experimentar los vínculos, valores y corresponsabilidad comunitaria. En el barrio, pueblo o municipio viven y conviven las personas. Están ahí los servicios, los proyectos y los agentes: escuelas, institutos, centros comunitarios, sociales, de salud, equipos y proyectos municipales, bibliotecas, centros de ocio y deportivos,... Son de proximidad las necesidades, los problemas, los desafíos, las dificultades, los procesos...
- 6.** La comunidad de barrio, pueblo o municipio es el contexto para actuar de manera conjunta frente a las violencias y por la igualdad de género, los retos de la democracia y el cambio climático, la inclusión, el uso del euskera, promover el encuentro y cooperación intergeneracional, tolerancia y respeto, equidad, diversidad, cohesión, facilitar la conciliación entre vida familiar y laboral, acompañar en las crianzas, promover inquietud por la lectura, el conocimiento, la cultura y las artes, el deporte. Para avanzar en convivencia amigable, bienestar, salud física y mental. Situando a cada persona y su bienestar en el centro de los proyectos, los servicios, las políticas, cuidar la vida, las vidas, y apoyar y acompañar en los momentos vitales y circunstancias. Hacer realidad los ODS. Construir prosperidad para todas sin dejar a nadie atrás.

- 7.** Parece adecuado sumar a la oferta de servicios el "motor comunitario" y saltar de modelo para avanzar, los agentes, servicios, proyectos, políticas, son más útiles, eficaces, eficientes y sólidos siempre que suman la triple clave comunitaria: potenciar vínculos, valores y corresponsabilidad.
 - 8.** Gestionemos las contradicciones para fortalecer la coherencia de los proyectos y procesos con esta triple clave comunitaria desde los barrios, pueblos y municipios, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba y Euskadi.
- 9. Pero... ¿Y qué hacer con la ciudadanía en las comunidades de barrio, pueblo y municipio? Impulsar su participación activa en actividades y procesos para:**
- Conocer y conectar con la realidad comunitaria.
 - Agitar el sentimiento de pertenencia a la comunidad.
 - Interactuar con los agentes, los servicios, proyectos y retos comunitarios.
 - Identificar y responder a las necesidades sociales, culturales...
 - Aportar competencias, conocimientos y valores para activar la ciudadanía activa.
 - Agitar pensamiento crítico para con madurez y conciencia analizar y abordar la realidad social, sus claves, contexto, circunstancias, consecuencias.
 - Potenciar apuestas y motores vitales: curiosidad, entusiasmo, participación ciudadana y voluntariado, transformación social, cooperación.
 - Aproximar a experiencias inspiradoras que son ejemplo y referencia en las maneras de ser, vivir, convivir, construir, cooperar, comunicar. Próximas o en otras comunidades.
 - Investigar sobre cuestiones diversas.
 - Provocar aprendizajes personales y colectivos desde la implicación en los procesos.
 - Analizar la vida cotidiana y el impacto de las acciones personales.
 - Generar marcos de pensamiento y conocimiento para la acción desde la perspectiva de los vínculos, los valores y la corresponsabilidad comunitaria.
 - Y mucho más.

- 10. Pero... ¿Y que hacer los agentes comunitarios?** Parece adecuado y urgente priorizar las conexiones y cooperación entre los agentes (Tercer Sector Social, administraciones públicas,...) para juntas potenciar los vínculos, los valores, y la corresponsabilidad comunitaria en los barrios, pueblos y municipios de la comunidad vasca. Contribuyendo al desarrollo de las personas y de las comunidades.